

-TAR ATZIZKIA: ORAINGO ZENBAIT ERABILERA BERRI ETA TRADIZIOA

Xabier Alberdi Larizgoitia
Euskal Herriko Unibertsitatea

SARRERA¹

Lan honetan, *-(t)ar* atzizkia duten egituren alderdi ilun eta eztabaidatu batzuk aztertu nahi ditut. Hona hemen, zehatz-mehatz, argitu nahi ditudan zenbait puntu:

1. Egia da gehienetan izena isilpean utzi ohi dela, izenondoa bera izen bilakatuz? Alegia, *donostiarrak*, *espainiarrak*, *italiarrak*... dira ohiko egitura, eta ez *donostiar idazleak* edo *idazle donostiarrak*? Hau da, egia da izen gisa ari den adjektibo soil batez osaturiko egitura (*donostiarrak*) nagusitzen zaiola egitura adjektibodunari (*donostiar idazleak / idazle donostiarrak*)?
2. Egia da, autore batzuek proposatu duten bezala (Euskaltzaindia 1993a: 155; Sarasola 1997: 88-89), literatura-tradizioan izenlagun-egitura (*bizkaitar idazleak*) izan dela nagusi, eta ez izenondo-egitura (*idazle bizkaitarrak*)? Egia da, bestalde, izenondo-egiturak (*idazle bizkaitarrak*) ez duela ia batere tradiziorik? Izan ote da aldatarik XX. mendeko hizkuntza idatzian kontu honetan?
3. Zein dira erator-atzizki hau duten izen-sintagmen ardatz-izenari dagozkion murriztapenak? Tradizioko erabilera ohikoenean, *-(t)ar* bukaerako eratorriak izen bizidunekin (batez ere, [+gizakia] ezaugarriekin) erabili dira nagusiki? Zein da azkenaldi honetan hizkuntza teknikoan gertatu den bilakaera? Gaurko erabilera berrien artean, zein dira baztertzekoak (*???erakunde lurraldetarra*, *???kontinente europarra*)? Zein dira erabilera dudazkoak (*?Konstituzio Espainiarra*, *?Frantziar Iraultza*, *?gazta holandarra*...)?

Galdera horiei erantzuteko, bi corpus hauek aztertu ditugu: 1970 arteko tradizio idatzia biltzen duen *Orotariko Euskal Hiztegiko Testu Corpora* (aurrerantzean *OEHtc*); eta XX. mendeko

¹ Artikulu hau Euskal Herriko Unibertsitateak (UPV-EHUk) diruz lagundutako ikerketa baten (00033.356-H-13674/2001 ikerketaren) fruituetariko bat da. Hemen aurkezten diren emaitzak, beraz, taldean eginiko ikerlan zabalago horren baitan kokatu behar dira.

hizkuntza idatzia —batez ere, 1970etik aurrerakoa— biltzen duen *Egungo Euskararen Bilketa-lan Sistematikoa (EEBS)*².

1. HITZ ERATORRIAREN KATEGORIA GRAMATIKALA: ATZIZKI ADJEKTIBO-SORTZAILEA (*BIZKAITAR IDAZLEAK / IDAZLE BIZKAITARRAK*), BAINA IZEN-ERABILERA NAGUSI (*BIZKAITARRAK*).

Hitz eratorriaren kategoria gramatikalari bagagozkio, ia gramatikari guztiak bat datoz *-(t)ar* atzizkia sailkatzerakoan: ia denek, atzizki adjektibo-sortzaileen artean sailkatu izan dute atzizki hau.

Dena dela, gramatikari gutxi (Azkarate 1991) ohartarazten digute atzizki hau, adjektibo-sortzaile izanik ere, maiz izen gisa erabiltzen dela: alegia, kontuan hartu behar da ezen euskaraz *bizkaitar bizilagunak* edota *bizilagun bizkaitarrak* egitura adjektibodunetatik, sintagmaren ardatz-izena (*bizilagun*) isilpean utzita, *bizkaitarrak* sintagma bakunagoa eratortzen dela.

Hain zuzen ere, bi erabilera horietako bakoitzaren maiztasuna aztertu nahi dugu lehenengo atal honetan. Gure datuen arabera, badirudi puntu honetan ez dagoela zalantza-izpirik: *-(t)ar* atzizkidunen izen-erabilera (*bizkaitarrak*) nagusitzen da bi corpusetan (bai *OEHtc*-n bai *EEBS*-n), alde handiarekin nagusitu ere. Hona hemen emaitzak:

² Lan honetan, erraztasunagatik, ‘*EEBS*’ laburdura zaharkitua erabili dugu, orain *XX. Mendeko Euskararen Corpus Estatistikoa* deritzona izendatzeko (<http://www.euskaracorpua.com>). Hain zuzen ere, gu Interneteko “bertsio” horretaz baliatu ginen datuak eskuratzeko.

I. -(T)AR ATZIZKIDUNAK [OEHTC / EEBS]: IZEN-ERABILERA NAGUSI.

	OEHTC	EEBS
Izen-erabilera: <i>Bizkaitarrak (etorri dira)</i>	%70,4 (5.153 agerraldi)	%60,2 (3.432 agerraldi)
Adjektibo-erabilera: <i>Bizkaitar idazleak (izlag.)</i> <i>Idazle bizkaitarrak (izond.)</i>	%21,8 (1.595)	%31,4 (1.794)
Atributua: <i>Bizkaitarra (zen)</i>	%7,5 (553)	%5,7 (325)
Zalantzak eta sailkatu gabeak	%0,1 (9)	%2,7 (154)
Guztira	%100 (7.310)	%100 (5.705)

Beraz, euskaraz -(t)ar atzizkia duten eratorriak gehienetan izen modura —izen-sintagma baten ardatz modura, alegia— erabiltzen ditugu (%70), nahiz eta atzizki hau, izatez, adjektibo-sortzailea den³. Egiaztapen estatistiko hori garrantzitsua da, gure ustez. Izan ere, datu estatistikorik ez badugu ere, susmoa dugu inguruko hizkuntzetan gauzak bestela gertatzen direla: alegia, susmoa dugu hizkuntza horietan jatorria adierazten duten kideko hitz eratorriak maizago erabiltzen direla adjektibo modura, eta adjektibo-erabileraren aldeko joera hori biziki igartzen dela gaurko euskararen, itzulpenaren eraginez batik bat (gazt. *calles madrileñas, continente europeo, oeste europeo...* / eusk. ??*kale madrildarrak, ??kontinente europarra, ??europar mendebaldea...*; ik. 3.2.).

2. EGITURA: IZENLAGUN-EGITURATIK (BIZKAITAR IDAZLEAK) IZENONDO-EGITURARANTZ (IDAZLE BIZKAITARRAK)?

Euskal gramatikaren arabera, izenaren ezkerrean nahiz eskuinean jar daiteke jatorria adierazten duen eratorria: *bizkaitar idazleak* nahiz *idazle bizkaitarrak*. Dena dela, Euskaltzaindiaren gramatikan honako iruzkin hau gehitzen da tradiziozko erabilera zein izan den eta joera berriak zein diren azaltzeko:

³ Adjektibo eratorri horietako batzuk, izen-erabileraren poderioz edo, izen gisa lexikalizatu dira: *auzotar, bakartar, baserritar, basetxetar, (euskal) herritar, kaletar, luistar...*

Badirudi *dirudun mutila* bezalako itzuliak ez zirela gehiegi erabiltzen Azkuek bere lanak egin zituen arte. Aldiz, *frantses hizlaria* bezalakoak oso hedatuak izan dira literatur tradizioan bai ekialdean bai mendebalean. Mitxelenak ere sistematikoki izenaren aurrean jartzen ditu halakoak. *Estatu frantziarra* eta tankera honetako esaldiak batez ere komunikabideen joeragatik zabaldu dira azken urteotan (Euskaltzaindia 1993a: 155).

Ibon Sarasola deskripziotik haratago doa, haren ustez tradizioan erabat nagusi izan den egitura (*bizkaitar idazleak*) berreskuratzearen alde mintzatuz:

Arrazoi daukazu sarreran mintzatua naiz gure literatura tradizioaren eta euskal baserrietako egungo euskararen arteko bat-etortze ia erabatekoaz. Nabaria da kontu hori herritarren izenaren joskeran. Tradizioan ia salbuespenik gabe *frantziar idazlea* motako joskerak agertzen dira, eta G. Garatek (...) artikuluan batean zioenez, joskera hori da baserri euskararen egiten dena. Bat nator izenaren aurreko alde oso kargatua datorrenean *-(t)ar* hauek atzealdean izenondo gisa ematea komeni dela. Baina salbuespena erregela bihurtzea, sistematikoki *pintore estatubatuarra* eta *idazle txinatarra* idatziz, betiko euskara errealearen kontra premiarik gabe aritzea besterik ez dela iruditzen zait (Sarasola 1997: 88-89).

Atal honetan, bada, Euskaltzaindiaren eta Sarasolaren adierazpen horiek egiaztatu edo gezurtatu nahi izan ditugu. Lehenik, *OEHTc*-ren azterketaren emaitzak aurkeztuko ditugu; ondoren, *EEBS*-renak; eta, azkenean, bien arteko konparazioa eskainiko dugu.

2.1. TRADIZIOKO ERABILERA (OEH-REN CORPUSAREN AZTERKETA): IZENLAGUN-EGITURA (BIZKAITAR IDAZLEAK) NAGUSI.

-(t)ar atzizkia duten eratorri guztiak kontuan hartzen baditugu, nahikoa nabarmena da literatura-tradizioan izenlagun-egitura izan dela erabiliena, eta ez izenondo-egitura. Hona hemen gure emaitzak:

IIA. -(T)AR ATZIZKIDUNAK [OEhtc]: IZENLAGUN-EGITURA (BIZKAITAR IDAZLEAK) ETA IZENONDO-EGITURA (IDAZLE BIZKAITARRAK)

-(T)AR GUZTIAK	OEhtc
IZENLAGUN-EGITURA: 1. <i>Bizkaitar idazleak</i> 2. <i>Agirre'tar Joseba</i> 3. <i>Jainkotiar gizonak</i> 4. <i>Atzerritar bidaztia</i> ⁴	%60,9 (971 agerraldi)
IZENONDO-EGITURA: 1. <i>Idazle bizkaitarrak / Pernando Amezketarra</i> 2. <i>Julio Urkixotarra</i> 3. <i>Gizon jainkotiarrak</i> 4. <i>Bidazti atzerritarra</i>	%39,1 (624 agerraldi)
GUZTIRA	%100 (1.595 agerraldi)

Nolanahi ere, aurreko taulan *-(t)ar* atzizkidunen multzoan *bizkaitar* modukoekin batera honako hauek ere sartu dira: *Agirre'tar (Joseba)*, *jainkotiar* eta *atzerritar*. Alde horretatik, sailkapen zabal eta laxo horrek funtsezko eztabaidagaiari buruzko ondorioak desbidera ditzakeela pentsa daiteke. Izan ere, geroago frogatuko denez, *-tiar* atzizkidunen jokaera sintaktikoa, esate baterako, oso bestelakoa da egiturari dagokionez.

Gauzak horrela, konparazio baliagarriak egin ahal izateko, murriztu egingo dugu *-(t)ar* atzizkidunen multzoa: oinarrian leku-izen berezia dutenak (*bizkaitar* modukoak) baizik ez ditugu kontuan hartuko IIB taulan.

⁴ Taula horretan eta hurrengoetan, honako eratorri-mota hauek bereizi ditut: 1. oinarritzat leku-izen berezia daukatenak (*bizkaitar*, *amezketar*); 2. Aranatarren garaiko izen-deiturak emateko modu berria (*Agirre'tar (Joseba)*); 3. *-tiar* atzizkiaren bidez eratorriak (*jainkotiar*); 4. oinarritzat leku-izen arrunta daukatenak (*atzerritar*).

IIB. -(T)AR ATZIZKIDUNAK [OEHtc]: IZENLAGUN-EGITURA (*BIZKAITAR IDAZLEAK*) ETA IZENONDO-EGITURA (*IDAZLE BIZKAITARRAK*)

LEKU-IZEN BEREZIAK OINARRI	OEHtc
IZENLAGUN-EGITURA: 1. <i>Bizkaitar idazleak</i> 2. <i>Agirre'tar Joseba</i> [359] 3. <i>Jainkotiar gizonak</i> [9] 4. <i>Atzerritar bidaztia</i> [248]	%64,8 (355 agerraldi)
IZENONDO-EGITURA: 1. <i>Idazle bizkaitarrak / Pernando Amezketarra</i> 2. <i>Julio Urkixotarra</i> [45] 3. <i>Gizon jainkotiarrak</i> [110] 4. <i>Bidazti atzerritarra</i> [276]	%35,2 (193 agerraldi)
GUZTIRA	%100 (548 agerraldi)

IIB taulan ageri denez, -(t)ar atzizkidunen multzoa murriztu ondoren, are nabarmenagoa da izenlagun-egiturak literatura-tradizioan duen nagusitasuna (%65 vs %35). Hala ere, IIB taulako datuen argitan ez dirudi izenlagunen nagusitasuna erabatekoa denik: hau da, *bizkaitar* edo *amezketar* gisako eratorriak, zeintzuek oinarrian leku-izen berezia duten, maiztxo erabiltzen dira (%35) izenondo modura literatura-tradizioan (*Pernando Amezketarra*).

Behin puntu honetara iritsita, beharrezkoa iruditzen zaigu aipatzea Azkuek egiten duen bereziketa argigarri bat. Hona hemen lekeitiarraren hitzak:

(...) Que los vocablos así derivados, si bien se anteponen a nombres que designan sexos, oficios... etc., sin embargo, a los personales se posponen. Decimos *Ondarrutar maisua* pero no *Ondarrutar Simon* sino *Simon Ondarrutarra* “Simón el ondarroes”. Es corriente *Lekeitiar neskatilak* pero no *Lekeitiar Mari Bati* sino *Mari Bati lekeitiarra* “María Bautista la lequeitiana” (Azkuek 1924-25: §185).

Tradizio idatziaren azterketa estatistikoak berretsi egiten du Azkueren baieztapena (ik. IIC taula): alegia, *OEH*ren corpusean askozaz ere maizago agertzen dira *Pernando Amezketarra* modukoak (121 agerraldi), *Amezketar Pernando* modukoak baino (23 agerraldi). Badirudi,

beraz, pertsona-izenak dituzten *Pernando Amezketarra* modukoak aski ugariak direla eta salbuespen garrantzitsua osatzen dutela izenlagun-egituraren aldeko joerari dagokionez: bestela esanda, *Pernando Amezketarra* modukoek osatzen dute tradizioko izenondo-egituren multzo handiena (121/193= %62,7).

Ondorioz, *bizkaitar idazleak / idazle bizkaitarrak* gisakoak bakarrik kontuan hartuz gero, alegia, pertsona-izenak dituzten konbinazioak (*Pernando Amezketarra / Laredotar Bernardino, James amerikar psikologoa* eta abar) bazter utziz gero, are nabarmenagoa da literatura-tradizioan (ik. IIC taula) izenlagun-egituraren alde dagoen joera⁵ (%83,2).

IIC. -(T)AR ATZIZKIDUNAK [OEHtc]: IZENLAGUN-EGITURA (*BIZKAITAR IDAZLEAK*) ETA IZENONDO-EGITURA (*IDAZLE BIZKAITARRAK*)

LEKU-IZEN BEREZIAK OINARRI, ETA PERTSONA-IZENEKIKO KONBINAZIOAK (B ₁ , B ₂) BAZTER UTZITA	OEHtc
IZENLAGUN-EGITURA: 1. a. <i>Bizkaitar idazleak</i> [308 agerraldi] b ₁ . <i>Laredotar Bernardino</i> [23 agerraldi] b ₂ . <i>James(,) amerikar psikologoa</i> [24 ager.]	%83,2 (308 agerraldi)
IZENONDO-EGITURA: 1. a. <i>Idazle bizkaitarrak</i> [62 agerraldi] b ₁ . <i>Pernando Amezketarra</i> [121 agerraldi] b ₂ . <i>Fulgencio(,) apaiz bermeotarra</i> [10 ager.]	%16,8 (62 agerraldi)
GUZTIRA	%100 (370 agerraldi)

Ardatz-izenaren azpikategorizazioari dagokion murriztapen bat aztertu berri dugu (*bizkaitar idazlea*, baina *Pernando Amezketarra*). Ildo beretik, eratorriaren azpikategorizazioari begiratu, eta oinarrian leku-izen berezia edota deitura ez beste edozein osagai dutenak soilik kontuan hartzen baditugu (*goitar, jainkotiar...*), badirudi horrelakoekin izenondo-egitura

⁵ Bestalde, Sarasolak dioten bezala (goragoko bigarren aipamena, Sarasola 1997: 88-89), sintagmaren ezker aldeko posizioak nahikoa beteta daudenean, arrazoizkoa da izenondo-egiturara jotzea: alegia, *ardi-itxurako bilbotar idazlea* baino maizago agertuko zaigu testuetan *ardi-itxurako idazle bilbotarra*. Izenondo-egiturara jotzen da, orobat, izenondo bat baino gehiago juntatu nahi direnean: *Eliza katoliko erromatarra* maizago agertzen da, *erromatar Eliza katolikoa* baino.

ateratzen dela garaile (ik. infra IID taula). Are gehiago, adjektibo jakin batzuekin izenondo-egitura erabat nagusitzen da: *argidotar* (40 izond./1 izlag.), *berandutar* (12/0), *goitar* (39/9), *goiztar* (31/9), *purubetar* (13/0)...

IID. *-(T)AR* ATZIZKIDUNAK [OEhtc]: IZENLAGUN-EGITURA (*GOITAR IDAZLEAK*) ETA IZENONDO-EGITURA (*IDAZLE GOITARRAK*)

BESTELAKO OINARRIAK (LEKU-IZEN BEREZIAK ETA ABIZENAK KENDUTA)	OEhtc
IZENLAGUN-EGITURA: 1. <i>Bizkaitar idazleak</i> [355] 2. <i>Agirre'tar Joseba</i> [359] 3. <i>Jainkotiar gizonak</i> [9] 4. <i>Atzerritar bidaztia</i> [248]	%40 (257 agerraldi)
IZENONDO-EGITURA: 1. <i>Idazle bizkaitarrak</i> [193] 2. <i>Julio Urkixotarra</i> [45] 3. <i>Gizon jainkotiarrak</i> [110] 4. <i>Bidazti atzerritarra</i> [276]	%60 (386 agerraldi)
GUZTIRA	%100 (643 agerraldi)

Bestalde, *-tiar* atzizkia duten eratorrien jokaera sintaktikoa oso garbia da: *jainkotiar* modukoak ia beti (110/119 = %92,4) erabiltzen dira izenondo gisa (*gizon jainkotiarrak*), eta nekez izenlagun gisa (*jainkotiar gizona*). Egiturazko jokaera berezi horrek eta azpikategoriaziozko beste berezitasun batzuek, *-tiar* forma aparteko atzizkia —eta ez *-(t)ar* atzizkiaren aldaera soila— dela pentsatzera bultzatzen gaituzte.

Laburbilduz, literatura-tradizioaren azterketak berretsi egiten du *bizkaitar idazleak* egituraren nagusitasuna, eta *idazle bizkaitarrak* egituraren tradizio urria. Baina baieztapen bikoitz horretan azpikategoriazio-murriztapen handiak dituzten elementuez osatutako egitura jakin batez ari gara, eta ez “X-tar + izena” tankerako konbinazio guztiez. Alde batetik, *-(t)ar* atzizkia duen hitzak leku-izen berezia behar du eduki oinarrian: beraz, *jainkotiar* eta *goitar* modukoak baieztapen horretatik kanpo utzi behar dira. Beste alde batetik, ardatz-izenari eragiten dioten murriztapenak daude: ardatzat pertsona-izena (izen berezia) duten

esapideetan (*Pernando Amezketarra, Mazantini elgoibartarra*) izenondo-egitura da nagusi literatura-tradizioan⁶.

2.2. XX. MENDEKO ERABILERA (*EEBS CORPUSAREN AZTERKETA*): IZENONDO-EGITURAREN HAZKUNDEA (*IDAZLE BIZKAITARRAK*).

Lehen begiratuan (IIIA taula) ematen du XX. mendeko euskaran *idazle bizkaitar* egitura (%60,4) gailentzen zaiola izenlagun-egiturari (%39,6). Dena dela, azterketa xeheagoek erakusten digutenez, tradiziozko izenlagun-egituraren aldeko joera ez da erabat iraultzen XX. mendean. Oinarrian leku-izen berezia duten eratorriak soilik kontuan hartuz gero (IIIB taula), alegia, *Agirretar, jainkotiar* eta *atzerritar* gisakoak bazter utzita, nahikoa parekatuta geratzen dira izenlagun- eta izenondo-egitura (%50,6 eta %49,4, hurrenez hurren). Eta, azterketa xeheago batean, pertsona-izen bereziak dituzten konbinazioak alde batera utziz gero (IIIC), *bizkaitar idazleak* egituraren nagusitasuna (%63,2) ondorioztatzen da.

Beraz, tradizioko erabileratik XX. mendeko erabilerara izenondo-egituraren hazkunde nabarmena egiaztatzen da, baina ez *idazle bizkaitarrak* egitura gailentzeraino, ezta gutxiagorik ere.

⁶ Euskaltzaindiaren gramatikan (goragoko lehen aipamena, Euskaltzaindia 1993a: 155) Mitxelenaren autoritatea aipatzen da izenlagun-egituraren aldeko joeraren bermetzat. Eta funtsean halaxe da, baina azpikategoriaioari dagozkion murriztapen aipatuak ahaztu gabe. Alegia, auzi honetan Mitxelenaren erabilera bat dator tradiziokoarekin: *bizkaitar idazle* modukoak erabiltzen ditu nagusiki, baina *aita Zabala bilbotarra* gisakoak ia bakarrik eta *eredu goitarra* modukoak ia bakarrik.

IIIA. -(T)AR ATZIZKIDUNAK [EEBS]: IZENLAGUN-EGITURA (BIZKAITAR IDAZLEAK) ETA IZENONDO-EGITURA (IDAZLE BIZKAITARRAK)

-(T)AR GUZTIAK	EEBS
IZENLAGUN-EGITURA: 1. <i>Bizkaitar idazleak</i> 2. <i>Agirre'tar Joseba</i> [+38] 3. <i>Jainkotiar gizonak</i> 4. <i>Atzerritar bidaztia</i>	%39,6 (717 agerraldi)
IZENONDO-EGITURA: 1. <i>Idazle bizkaitar /Pernando Amezketarra</i> 2. <i>Julio Urkixotarra</i> 3. <i>Gizon jainkotiarrak</i> 4. <i>Bidazti atzerritarra</i>	%60,4 (1.093 agerraldi)
GUZTIRA	%100 (1.810 agerraldi)

IIIB. -(T)AR ATZIZKIDUNAK [EEBS]: IZENLAGUN-EGITURA (BIZKAITAR IDAZLEAK) ETA IZENONDO-EGITURA (IDAZLE BIZKAITARRAK)

LEKU-IZEN BEREZIAK OINARRI	EEBS
IZENLAGUN-EGITURA: 1. <i>Bizkaitar idazleak</i> 2. <i>Agirre'tar Joseba</i> [38] 3. <i>Jainkotiar gizonak</i> [22] 4. <i>Atzerritar bidaztia</i> [234]	%50,6 (423 agerraldi)
IZENONDO-EGITURA: 1. <i>Idazle bizkaitarrak / Pernando Amezketarra</i> 2. <i>Julio Urkixotarra</i> [0] 3. <i>Gizon jainkotiarrak</i> [169] 4. <i>Bidazti atzerritarra</i> [511]	%49,4 (413 agerraldi)
GUZTIRA	%100 (836 agerraldi)

III.C. -(T)AR ATZIZKIDUNAK [EEBS]: IZENLAGUN-EGITURA (*BIZKAITAR IDAZLEAK*) ETA IZENONDO-EGITURA (*IDAZLE BIZKAITARRAK*)

LEKU-IZEN BEREZIAK OINARRI, BAINA IZEN BEREZIEKIKO KONBINAZIOAK (b ₁ , b ₂) BAZTER UTZITA	EEBS
1. IZENLAGUN-EGITURA: a. <i>Bizkaitar idazleak</i> [403 agerraldi] b ₁ . <i>Laredotar Bernardino</i> [4 agerraldi] b ₂ . <i>James(-) amerikar psikologoa</i> [16 ager.]	%63,2 (403 agerraldi)
2. IZENONDO-EGITURA: a. <i>Idazle bizkaitarrak</i> [235 agerraldi] b ₁ . <i>Pernando Amezketarra</i> [148 agerraldi] b ₂ . <i>Fulgencio(-) apaiz bermeotarra</i> [30 ager.]	%36,8 (235 agerraldi)
GUZTIRA	%100 (638 agerraldi)

2.3. *OEHtc* ETA *EEBS* CORPUSEN ARTEKO KONPARAZIOA: IZENLAGUN-EGITURAREN NAGUSITASUNA (*BIZKAITAR IDAZLEAK*), ETA IZENONDO-EGITURAREN HAZKUNDEA (*IDAZLE BIZKAITARRAK*).

Bi corpusetako joerak alderatuz gero, beraz, bi ondorio ateratzeko moduan gaude: 1) *bizkaitar idazleak* moduko esapideetara mugatzen badugu azterketa (alegia, batetik *Agirretar*, *jainkotiar* eta *atzerritar* gisako eratorriak baztertuz gero —IVB taula—, eta bestetik (*amezketar*) *Pernando (amezketarra)* gisakoak bazter utziz gero —IVC taula—), frogatutzat ematen dugu izenlagun-egitura izan dela nagusi, bai tradizioko erabileran bai XX. mendekoan; 2) joera orokorra hori bada ere, XX. mendeko euskaran *idazle bizkaitarrak* egituraren erabilera nabarmen hazi dela egiazta dezakegu.

IVA. KONPARAZIOA: IZENLAGUN-EGITURA ETA IZENONDO-EGITURA BI CORPUSETAN.


-(T)AR GUZTIAK	OEhtc	EEBS
IZENLAGUN-EGITURA: 1. <i>Bizkaitar idazleak</i> 2. <i>Agirre'tar Joseba</i> 3. <i>Jainkotiar gizonak</i> 4. <i>Atzerritar bidaztia</i>	%60,9 (971 agerraldi)	%39,6 (717 agerraldi)
IZENONDO-EGITURA: 1. <i>Idazle bizkaitarrak</i> 2. <i>Julio Urkixotarra</i> 3. <i>Gizon jainkotiarrak</i> 4. <i>Idazti atzerritarra</i>	%39,1 (624 agerraldi)	%60,4 (1.093 agerraldi)
Guztira	%100 (1.595 agerraldi)	%100 (1.810 agerraldi)

IVB. KONPARAZIOA: IZENLAGUN-EGITURA ETA IZENONDO-EGITURA BI CORPUSETAN (LEKU-IZEN BEREZIAK OINARRI).

LEKU-IZEN BEREZIAK OINARRI	OEhtc	EEBS
IZENLAGUN-EGITURA: 1. <i>Bizkaitar idazleak</i> 2. <i>Agirre'tar Joseba</i> 3. <i>Jainkotiar gizonak</i> 4. <i>Atzerritar bidaztia</i>	%64,8 (355 agerraldi)	%50,6 (423 agerraldi)
IZENONDO-EGITURA: 1. <i>Idazle bizkaitarrak</i> 2. <i>Julio Urkixotarra</i> 3. <i>Gizon jainkotiarrak</i> 4. <i>Bidazti atzerritarra</i>	%35,2 (193 agerraldi)	%49,4 (413 agerraldi)
Guztira	%100 (548 agerraldi)	%100 (836 agerraldi)

IVC. KONPARAZIOA: IZENLAGUN-EGITURA ETA IZENONDO-EGITURA BI CORPUSETAN.

LEKU-IZEN BEREZIAK OINARRI, BAINA PERTSONA-IZENEKIKO KONBINAZIOAK BAZTER UTZITA	OEhtc	EEBS
IZENLAGUN-EGITURA: 1. a. <i>Bizkaitar idazleak</i> b ₁ . <i>Laredotar Bernardino</i> b ₂ . <i>James(,) amerikar psikologoa</i>	%83,2 (308 agerraldi)	%63,2 (403 agerraldi)
IZENONDO-EGITURA: 2. a. <i>Idazle bizkaitarrak</i> b ₁ . <i>Pernando Amezketarra</i> b ₂ . <i>Fulgencio(,) apaiz bermeotarra</i>	%16,8 (62 agerraldi)	%36,8 (235)
Guztira	%100 (370 agerraldi)	%100 (638 agerraldi)



3. EGITURA ADJEKTIBODUNEN ARDATZ-IZENA: IZEN BIZIGABEAK ERE ARDATZ (EUROPAR PARLAMENTUA)?

Atal honetan auzi hau dugu aztergai: *-(t)ar* atzizkiaren bidez sorturiko adjektiboak izen bizigabeekin ere konbinatzen dira tradiziozko erabileran? Ez al dago nolabaiteko murriztapenik ardatz-izenaren azpikategorizazioari dagokionez? Bestela esanda, eta oraintsuko adibideen bitartez azaltzeko, zuzenak eta egokiak dira *Europar Batasuna* eta *Europar Parlamentua* modukoak? Ba al dago arrazoirik haien ordez *Europako Batasuna* eta *Europako Parlamentua* hobesteko? Hona hemen, Euskaltzaindiko LEF Batzordeak gai honen inguruan adierazi zuen kezka:

Azken urteetan asko ugaldtu dira *espainiar parlamentua*, *aldizkari galiziarra*, *frantziar iraultza* eta horien antzekoak. Ez da ohizkoena *-ar / -tar* atzizkiaren bidez sortu den izenondoa izen bizigabeekin erabiltzea; nolahi den, ez genuke ahaztu behar *Espainiako parlamentua* edo *Frantziako iraultza* ere erabil daitezkeela (nahiz *galiziar* eta *Galiziako* ez izan beti sinonimoak) (Euskaltzaindiko LEF Batzordea 1994: 1045).

3.1. TRADIZIOKO ERABILERA (OEHtc CORPUSAREN AZTERKETA): IZEN BIZIGABEAK ERE ARDATZ (ERROMATAR KULTURA)?

*OEH*ren corpusaren azterketatik zera ondorioztatzen da: egia bada ere maizenik *-(t)ar* atzizkidunak izen bizidunekin erabili izan direla (%66,3), izen bizigabeei loturikoen kopurua

ez da inola ere hutsala. Izan ere, “X-(t)ar + [izen bizigabea]” moduko sekuentziak heren bat dira corpus horretan (ik. Va taula).

Va. [OEhtc]: IZEN BIZIGABEAK ERE ARDATZ (BIZKAITAR LITERATURA...)?

-(T)AR GUZTIAK, AGIRRE'TAR JOSEBA MODUKOAK KENDUTA	OEhtc
ARDATZ-IZENA [+GIZAKIA]: <i>bizkaitar IDAZLEAK / IDAZLE bizkaitarrak</i> <i>Agirre'tar Joseba</i> [359] / <i>Julio Urkixotarra</i> [45] <i>Jainkotiar GIZONAK / GIZON jainkotiarrak</i> <i>atzerritar ARLOTEA / ARLOTE atzerritarra</i>	%66,2 (788 agerraldi)
ARDATZ-IZENA [-GIZAKIA]: <i>bizkaitar LITERATURA / LITERATURA bizkaitarra</i> <i>INDAR jainkotiar / jainkotiar INDARRA</i> <i>INDAR goitarra / goitar INDARRA</i>	%33,8 (403 agerraldi)
GUZTIRA	%100 (1.191 agerraldi)

Gehienetan, leku-izen berezi baten gainean eraikitako adjektiboak juntatzen dira izen bizigabearekin. Gainera, adjektibo horietako batzuk (*erromatar, espainiar, bizkaitar, lapurtar...*) halako maiztasun batez erabiltzen dira bizigabeekin:

- (1) LEKU-IZEN BEREZIA OINARRI (109 AGERRALDI)
 - a. ALMERIATAR lantza
 - b. ASTURTAR suarria
 - c. AURIGNACTAR ertia
 - d. BAXENABARTAR hizkuntza/euskara/izpi...
 - e. BIZKAITAR literatura /izena/besoak/izena...
 - f. BOHEMITAR bizitza
 - g. ERROMATAR etxea/gogolantzea//kultura/mundua/konkista/
gudaroste/hiriak...
 - h. ESPAINIAR guduontzia/mundua/euskara/ontzia/martiztia...
 - i. EUSKOTAR ereduaz/azala/abegia/udala/bihotza...; abizen EUSKOTARRAK.
 - j. GARAZTAR erreka
 - k. KADMEITAR agintea
 - l. KERESTAR lo-belarra
 - m. LAPURTAR hizkuntza/herriak/literatura...

n. TESALITAR elezaharra

Zenbaitetan izen arrunten (2) edota pertsona-izen berezien (3) gainean eraikitako eratorriak agertzen dira izen bizigabeekin:

- (2) IZEN ARRUNTA OINARRI
- HERRITAR literatura
 - HIRITAR gizadia
 - BASOTAR eraso
 - ELIZTAR ikastetxea
 - izartxo GAUTARRAK / GAUTAR atseginak
- (3) PERTSONA-IZEN BEREZIA OINARRI
- PALETAR jaiak (Pale = jainko baten izena)
 - FRANTZISKOTAR fraideak

Erorri jakin batzuk, gainera, askozaz maizago erabiltzen dira izen bizigabeekin, izen bizidunekin baino:

- (4) OHIKO EGITURA: “IZEN BIZIGABEA + GOITAR, GOIZTAR, ZERUTAR...”
- indar/olerkari-arnasa/leku/politika/erretorika/ ... GOITARRA
 - izar/jakituria/eguzki/bihotz/igali/lore/argi... GOIZTIARRA
 - gau/elkarriketa/baltsamo/soinu/irribarre/arnasa/aire/... ZERUTARRA;
ZERUTAR kutsu/amets...

	<i>GOITAR</i>	<i>ZERUTAR</i>	<i>GOIZTIAR</i>
ARDATZ-IZENA [+GIZAKIA]:	%8,1 (4 agerraldi)	%27,1 (19 agerraldi)	%37,3 (19 agerraldi)
ARDATZ-IZENA [-GIZAKIA]:	%91,8 (45 agerraldi)	%72,9 (51 agerraldi)	%62,7 (32 agerraldi)
GUZTIRA	%100 (49 agerraldi)	%100 (70 agerraldi)	%100 (51 agerraldi)

Dena dela, datuen irakurketa fintzea komeni da, aurreko ataletan egin dugun modu berean. Horrela, “X-(t)ar + [izen bizigabea]” sekuentzien multzoan, bi azpimultzo nagusi bereiz ditzakegu eratorriaren oinarri-motaren arabera: a) alde batetik, oinarrian leku-izen berezia duten *bizkaitar literatura* modukoak ditugu (1); bestetik, *erretorika goitarra* modukoak (4). Hortaz, *bizkaitar literatura* modukoaren pisu erlatiboa haztatzeko, oinarrian leku-izen berezia

duten eratorriak soilik hartu behar ditugu kontuan, eta ez *-(t)ar* atzizkidun guztiak (ik. vb, eta supra IIb).

vb. [OEhtc]: IZEN BIZIGABEAK ERE ARDATZ (*BIZKAITAR LITERATURA*)?

LEKU-IZEN BEREZIAK OINARRI	OEhtc
ARDATZ-IZENA [+GIZAKIA]: <i>bizkaitar IDAZLEAK / IDAZLE bizkaitarrak</i> <i>Agirre'tar Joseba / Julio Urkixotarra</i> <i>Jainkotiar GIZONAK / GIZON jainkotiarrak</i> <i>atzeritar BIDAZTIA / BIDAZTI atzeritarra</i>	%80,1 (439 agerraldi)
ARDATZ-IZENA [-GIZAKIA]: <i>bizkaitar LITERATURA / LITERATURA bizkaitarra</i> <i>jainkotiar ONBIDE / ONBIDE jainkotiar</i> <i>INDAR goitarra / goitar INDARRA</i>	%19,9 (109 agerraldi)
GUZTIRA	%100 (548 agerraldi)


Beraz, literatura-tradizioan sarritxo azaltzen dira *-(t)ar* atzizkia duten adjektiboak izen bizigabe bat modifikatuz. Adjektibo jakin batzuekin (*goitar, goiztar, zerutar*), batez ere, oso ohikoak dira horrelako esapideak (cf. (4)-ko adibideak). Bestalde, oinarrian leku-izen berezia duten eratorriei dagokienez (*bizkaitar*), *bizkaitar literatura* gisakoek kontuan hartzeko moduko kopurua osatzen dute (%20). Ondorioz, ezin esan daiteke literaturan *erromatar kultura* modukoak salbuespen direnik, horrelakoen kopurua aintzat hartzeko modukoa baita.

3.2. XX. MENDEKO ERABILERA (*EEBS* CORPUSAREN AZTERKETA): IZEN BIZIGABEAK NAGUSI ARDATZ MODURA (*SISTEMA HAMARTARRA*).

Beheko tauletan ikus daitekeenez (vb eta vc), XX. mendeko euskaran *-(t)ar* atzizkia duten eratorriak erruz agertzen dira izen bizigabeak modifikatuz. Hainbeste ugaritzen dira *sistema hamartar* modukoak, ezen joerak irauli egiten baitira: hau da, XX. mendean, izen bizigabeekiko konbinazioak ateratzen dira garaile (%56).

Vb. *EEBS*: IZEN BIZIGABEAK ERE ARDATZ (*SISTEMA HAMARTARRA*)?

	<i>EEBS</i>
ARDATZ-IZENA [+GIZAKIA]: <i>bizkaitar IDAZLEAK / IDAZLE bizkaitarrak</i>	%43,8 (777 agerraldi)
ARDATZ-IZENA [-GIZAKIA]: <i>hamartar SISTEMA / SISTEMA hamartarra</i>	%56,2 (998 agerraldi)
GUZTIRA	% 100 (1.775 agerraldi)



XX. mendean gertatu den joera-aldaketa, neurri handi batean, terminologia-beharrek eragindakoa da. Hor sartzen dira esapide hauen gisakoak:

- (5) TERMINOLOGIA-BEHARREK ERAGINDAKOAK
- a. sistema BITAR / HAMARTAR / HAMASEITAR / HIRUROGEITAR...
 - b. zenbaki HAMARTAR...
 - c. SOBIETAR Batasuna
 - d. giro URTAR
 - e. bizitza / adimen ESTRALURTAR
 - f. ERROMATAR zuzenbide
 - g. ekosistema-estai SUBALPETAR
 - h. momentu ANGELUAR
 - i. espazio EUKLIDEAR
 - j. BIZANTZIOTAR dorre
 - k. tenplu JONIAR
 - l. IBERIAR penintsula
 - m. behi PIRINIAR

- n. desberdintza TRIANGELUAR
- o. koordenatu KARTESIAR

Adjektibo eratorri berri horietako batzuetan (*bitar, hamartar, angeluar...*), badirudi atzizkiaren azpikategoriazio-joera nagusietatik haratago joan garela: *bitar* moduko eratorrietan ez da sumatzen atzizkiaren adiera nagusietarik bat bera ere (“jatorria”: *bizkaitar*; “jarraitzailea”: *axulartar*; “jatorria-zalea”: *zerutar, eskuindar*), eta oinarrian zenbatzaile bat izatea ere guztiz ohiz kanpoko da. Horrelako adjektibo sortu berrietan, *-(t)ar* atzizkiaren bidez nolabaiteko sailkapena egin nahi da: alegia, izakiak sail jakin batekoak direla adierazten da (ik. Zabala 1999: 142).

Askotan, ordea, erdal erlazio-izenondoen ordainak *-(t)ar* atzizkiaren bidez emateko saiakerek ez dute arrakastarik lortu. Izan ere, saiakera horietako batzuk terminologia-beharrek baino areago, errazkeriak eragindako “esperimentuak” izan dira. Hona hemen, oihartzun handirik izan ez duten eratorri berri horietako batzuk:

- (6) ERDAL IZENONDOEN ORDAIN MIMETIKOAK
 - a. erakunde LURRALDEITAR... (cf. Elh.: ‘territorial’: *lurraldeko-*, *lurraldearen*; hitz-elkarteetan: *lurralde-*).
 - b. garantia ERAKUNDEITAR
 - c. erakunde EZ-GOBERNUTAR (cf. Egunkaria 2001: *gobernuz kanpoko erakundeak*)
 - d. erregresio ITSASTAR
 - e. zonalde LANDATAR
 - f. GIZARTETAR askatasun
 - g. narrasti UGAZTUNDAR
 - h. irradiazio EGUZKITIAR
 - i. KONTINENTAR aztarnategi

Beste askotan, XX. mendean “*-(t)ar* + izen bizigabea” egiturak hartzen duen maiztasun handia albo-hizkuntzen eraginari edota itzulpenari loturik dago. Alegia, idazle eta itzultzaileen utzikeriak eragindakoak dira egitura horietako asko. Hona hemen, historia-arloko itzulpen batetik jasotako erakusgarri batzuk:

- (7) ERDAL EGITURAREN KALKOAK ERAGINDAKOAK
 - a. XIX. mendearen hasieran *kontinente europarrean* zeuden efektibo demografikoak...
[>*European*]
 - b. (...) *pisu demografiko europarrak* gorantz egin zuen.

- [>Europaren pisu demografikoak]
- c. (...) moderatua izan zen *Europa mediterranean*...
[>Mediterraneoko Europan]
 - d. (...) bistakoa da industrializazio-prozesuarekin batera gertatu zen *dinamismo demografiko europarra*.
[>Europan...izan zen *dinamismo demografiko* / *Europak... izan zuen dinamismo demografiko*]
 - e. (...) *jaiotze-tasa europarra* oso astiro jaitsi zen.
[>europarren/*Europako jaiotze-tasa*]
 - f. (...) egin zuen posible *pasa den mendeko gehikuntza demografiko europarra*.
[>*joan den mendean Europan izan zen hazkuntza demografiko*]
 - g. (...) *ezaugarri demografiko europar hori* sartu izan da (...) azalpen estrukturalen artean.
[>Europaren *ezaugarri demografiko hori...*]
 - h. (...) utzi zituzten *soro europarrak* betiko, *herrialde amerikarretara* joateko.
[>Europako *soroak... Amerikako lurraldeetara...*]
 - i. (...) edo XIX. mendearen azkenetatik zabalitze-fase berri bat bizi zuten *hiri-kontzentrazio europarretara* joateko.
[>Europako *hiri handietara*]
 - j. Baina nekazaritza-eremuak bertan behera uzte hori prozesu motel eta graduala izan zen, *iparraldeko Europan, mediterranean* baino azkarragoa.
[>eta *iparraldeko Europan azkarrago gertatu zen, Mediterraneokoan baino*]
 - k. 1870era arte *jatorri britaniar* eta *eskandinaviarreko migrazio europarra* nagusitu zen.
[>*britaniarren eta eskandinaviarren migrazioa nagusitu zen Europan*]
 - l. (...) eta mendearen azkenetatik aurrera, XX. mendearen lehenengo hamarkadetan, transatlantikoetako ganbarak bete zituztenak *jatorri mediterraneanreko emigratzaileak* izan ziren (Italia, Espainia, Portugal, Grezia eta Turkiakoak).
[>eta mendearen azkenetatik aurrera, XX. mendearen lehenengo hamarkadetan, *Mediterraneotik* (Italia, Espainia, Portugal, Grezia eta Turkiatik) *joandakoak* izan ziren transatlantikoetako ganbarak bete zituztenak.]

Goiko adibideetan ia ez da eratorri berririk asmatu (*europar* adjektiboa agertzen da behin eta berriro); eta, beraz, “X-(t)ar + izen bizigabea” egitura ez da terminologia-beharren ondorioa, erdal egitura (“izena + izenondoa”) kalkatzeko joera itsuaren ondorio baizik. Izan ere, kideko erdal adjektiboak “aposiziozko erlazioa” (8) adierazten duenean, ezin da kalkatu erdal egitura (ik. Zabala 1999: 144). Antzeko eragozpenak ditugu erdal adjektibo tematiko gehienak

kalkatzeko (9), eta orobat izakien kokapena adierazten duten erdal adjektiboak itsumustuan kalkatzeko (10).

- (8) a. *continente europeo* / ?? *europar kontinentea* > *Europa (kontinentea)*
- (9) a. *peso demográfico europeo* / ?? *pisu demografiko europarra* > *Europaren (europarren) pisu demografikoa*
 b. *crecimiento demográfico europeo* / ?? *gehikuntza demografiko europarra* > *europarren gehikuntza (hazkuntza) demografikoa*
 c. *oeste europeo* / ?? *europar mendebaldea* > *Europaren mendebaldea*
- (10) a. *oeste europeo* / ?? *europar mendebaldea* > *Europako (-ren) mendebaldea*
 b. *calles madrileñas* / ?? *kale madrildarrak* > *Madrilgo kaleak*
 c. *campos europeos* / ?? *soro europarrak* > *Europako soroak*
 d. *territorios europeos* / ?? *lurralde europarrak* > *Europako lurraldeak*

Dena dela, adjektiboaren eraketa alde batera utzita, zenbaitetan badirudi “X-(t)ar + [izen bizigabea]” sekuentzia ezin daitekeela itsu-itsuan ordezkatu “X-ko + [izen bizigabea]” egiturarekin. Alegia, bistan dagoenez, *erromatar zubia* eta *Erromako zubia* ez dira trukagarriak: *erromatar zubia* diogunean, “zubi-klase jakin bat” aipatzen ari gara, eta ez “leku jakin batean dagoen zubia”⁷.

Beraz, zenbait testuingurutan -(t)ar atzizkia erabili beharra izango dugu, -ko atzizkiaren anbiguotasuna saihestu nahi badugu, behintzat:

- (11) a. *atzeritar inbertsioak* = “atzeritarrek egindako inbertsioak”
 b. *atzerriko inbertsioak* = 1. “atzerrian egiten diren inbertsioak”
 2. “atzeritik etorritako inbertsioak”...

⁷ Juan Garzia lankideari eta adiskideari zor diodan iradokizun bat neure eginez, honela adieraz nezake zertan den bi egitura horien arteko banaketa: nolabait esateko, -ko atzizkiak huts egiten digunean litzateke zilegi -(t)ar atzizkiaz baliatzea. Alde horretatik, -(t)ar atzizkidunak beti dira zilegi funtzio adjektibatzailearekin: *Gasteizko kale (hain) madrildarrak; kostaldeko klima menditarra...*

4. ONDORIOAK

1. *-(t)ar* atzizkia, izatez, adjektibo-sortzailea da; baina atzizki hau duten izenondo eratorriak gehienetan (%70) izen modura erabiltzen ditugu: hau da, *bizkaitar idazleak* edota *idazle bizkaitarrak* egitura adjektibodunak baino askozaz ere maizago agertzen dira tradizio idatzi osoan —zaharrean nahiz XX. mendekoan— *bizkaitarrak* modukoak, haietatik ardatz-izena isilpean utzita sortuak. Egiaztapen estatistiko hori garrantzitsua da hizkuntzen arteko konparazioaren ikuspegitik. Izan ere, susmoa dugu inguruko hizkuntzetan jatorria adierazten duten kideko hitz eratorriak euskaraz baino biziki gehiago erabiltzen direla adjektibo modura (gazt. *calles madrileñas, continente europeo...* / eusk. *?kale bilbotarrak, ?kontinente europarra...*).
2. Literatura-tradizioaren azterketak berretsi egiten du *bizkaitar idazleak* egituraren nagusitasuna, eta orobat *idazle bizkaitarrak* egituraren tradizio urria. Baina baieztapen bikoitz horretan azpikategorizazio-murriztapen handiak dituzten elementuez osatutako egitura jakin batez ari gara, eta ez “X-*tar* + izena” tankerako konbinazio guztiez. Batetik, *-(t)ar* atzizkia duen hitzak leku-izen berezia behar du eduki oinarrian (beraz, *jainkotiar* eta *goitar* modukoak baieztapen horretatik kanpo utzi behar dira). Bestetik, ardatz-izenari eragiten dioten murriztapenak daude: ardaztat pertsona-izena duten esapideetan (*Pernando Amezketarra, Mazantini elgoibartarra*) izenondo-egitura da nagusi literatura-tradizioan. Bestalde, XX. mendean, oro har, eutsi egiten zaio izenlagun-egituraren aldeko joerari (*bizkaitar idazleak*), baina *idazle bizkaitarrak* egituraren erabilera nabarmen hazten da.
3. Literatura-tradizioan sarritxo azaltzen dira *-(t)ar* atzizkia duten adjektiboak izen bizigabe bat modifikatuz (*erromatar kultura*). Are gehiago, izenondo jakin batzuekin (*goitar, goiztar, zerutar*) oso ohikoak dira horrelako esapideak. Bestalde, oinarrian leku-izen berezia duten eratorriei dagokienez, kontuan hartzeko moduko maiztasuna dute *bizkaitar literatura* moduko segidek (%20). Beraz, literaturan *-(t)ar* atzizkia duen adjektiboa izen bizigabe batekin erabiltzea ohikoena ez bada ere, ezin esan daiteke *erromatar kultura* modukoak salbuespen direnik, aintzat hartzeko modukoa baita horrelakoen kopurua. Ondorioz, gure ustez, tradizioaren arabera, onartzeko modukoak dira *Europar Batasuna* edota *Europar Parlamentua* gisakoak.

XX. mendean, ordea, ardaztat izen bizigabe bat duten adibideen multzoa ikaragarri hazten da, *sistema hamartarra* gisakoak nagusitzeraino (%56). Hazkunde hori, neurri batean, terminologia-beharrek eta izenondo-defizitak eragindakoa da (*sistema bitar, Sobietar Batasuna, espazio euklidear, iberiar penintsula...*). Alde horretatik, proposamen horietako batzuek badute nolabaiteko zilegitasuna, nahiz eta zenbaitetan azpikategorizazio-joera nagusiak bortxatzen edo gainditzen diren. Baina, askotan, horrelako esapideen ugaltzea, terminologia-beharrak barik, erdal erlazio-izenondoek kalkoitsuak (*erakunde lurraldetar, erakunde ez-gobernatar...*) edota erdal egituraren mimetismoitsuak eragindakoa izaten da (*kontinente europarra, pisu demografiko europarra...*): horrelako proposamenek ez dute inongo zilegitasunik; eta ez dute, beharrik, arrakastarik izan.

BIBLIOGRAFIA

- Azkarate, M. 1991. *Euskal Hizkuntza. Lexikologia, irakaskuntza-proiektua*. Euskal Herriko Unibertsitatea, Euskal Filologia Saila (lan argitaragabea).
- Azkue, R.M. 1925. *Morfología vasca*. Bilbo (Bigarren argitalpena erabili dugu aipamenetan: Bilbo: La Gran Enciclopedia Vasca. 1969).
- Egunkaria. 2001. *Estilo Liburua*. Euskaldunon Egunkaria (2. argitaraldia).
- Euskaltzaindia. 1993a. *Euskal Gramatika Laburra: Perpaus Bakuna*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Euskaltzaindiko LEF Batzordea. 1994. "Eratopenaz", *Euskera* 1994-3, 39. liburukia, 1039-1058 (Euskaltzaindiaren XIII. Biltzarrean aurkeztutako txostena).
- Sarasola, I. 1997. *Euskara batuaren ajeak*. Donostia: Itxaropena.
- Zabala, I. 1997. "Argumentu-harremana / eremu-harremana: izenondo erreferentzialen euskal ordainen bila". In *Nazioarteko Terminologia Biltzarra*. Donostia: HAEE-UZEI, 535-556.
- . 1999. "Izen-sintagma konplexuak: adjektiboen eta izenlagunen segidak". In Odriozola (argitaratzailea, 1999), *Zenbait Gai Euskara Teknikoaren Inguruan*, Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua. 107-157 or.

CORPUSAK:

EEBS: *Egungo Euskararen Bilketa-lan Sistematikoa (XX. Mendeko Euskararen Corpus Estatistikoa* da oraingo izena, eta helbide honetan dago: <http://www.euskaracorpora.com>).

OEHtc: Euskaltzaindia, 1984, *OEH-ko testu corpora*.